

Graduko ikasketak koordinatzeko protokoloa

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA

Kalitate, Ikasketa Berrikuntza eta Ekintzaitzako Dekanordetza

UPV/EHU | EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA

2024/12/10EKO KALITATE BATZORDEAK BALIOZKOTUA

Aurkibidea


1. GRADUKO IKASKETAK KOORDINATZEKO PROZEDURA OROKORRA	2
2. GRADUKO IRAKASGAIKO KOORDINATZAILEA	4
3. GRADUAN, MAILAKO/MODULUKO KOORDINATZAILEA	6
4. GRADUKO TITULAZIOKO KOORDINATZAILEA	7
5. GRADU BIKOITZEN KOORDINATZAILEAK	9
6. KALITATEKO DEKANORDEA	12

GRADUKO IKASKETAK KOORDINATZEKO PROZEDURA OROKORRA

Ekonomia eta Enpresa Fakultateko graduko ikasketak koordinatzeko prozedura bat dator Graduko Ikasketen Gestiorako Arautegiarekin.

Irakaskuntza eskaintza, ikaskuntzaren emaitzen definizioa, irakaskuntzako metodologiak eta ebaluazio sistemak sailetan zehazten dira bat etorrira titulazio bakoitzeko memoriarekin. Hori guztia irakasgaiaren **irakaskuntza gidan** biltzen da eta argitara ematen da matrikula epea ireki aurretik, ikasleek eskuragarri izan dezaten irakaskuntzari laguntza emateko plataforma birtualean. Irakasgaia EEFko atal batean baino gehiagotan ematen bada, irakaskuntza gida irakasle guztien artean egiten da irakasgaiko koordinatzaileak gainbegiratuta.

Titulazioaren jarraipena koordinatzaileak (ataleko batzordeak edo/eta ataletako batzarrek izendatua) bermatzen du, bai eta mailako eta moduluetakoez ere. Koordinazio lana horizontala (irakasgaiak eta moduluak) eta bertikala (moduluak eta graduak) da, ondorengo fluxugraman ikus daitekeenez:



Grada EEFko **atal batean baino gehiagotan ematen bada**, irakaskuntza-ikaskuntza bateratzeko prozesua atal bakoitzeko graduko arduradunen arteko koordinazio lanaren bidez bermatzen da.

Gratu bikoitzen koordinazioa batzorde akademikoen bidez egiten da, batzorde horien ardurapekoa baita irakaskuntza eskaintza eta arlo akademikoaren antolaketa.

Prozesu horren emaitza maila bakoitzeko **koordinazio txostena** da: graduako koordinatzaileek txostenak batu eta sistematizatu ondoren, **jarraipen txostena** egiten dute. Txosten horiek barne hausnarketarako aukera ematen dute oinarri hartuta etengabeko hobekuntzaren filosofia, eta titulazio bakoitzeko indarguneak eta hobetu beharrekoak antzematen dira. Prozesua bukatzeko, gradu bakoitzeko koordinazio arduradunek ikasleen ordezkariekin hitz egiten dute ikasleen iritzia entzuteko.

Txosten guztiak **Kalitate Batzordeak** ematen ditu ontzat **Fakultateko Batzarrean** aurkeztu aurretik, eta, ondoren, web gunean argitaratzen dira gizarte osoaren esku jartzeko titulazioko emaitzak.

GRADUKO IRAKASGAIKO KOORDINATZAILEA

Irakasgai bat irakasle batek baino gehiagok ematen badu, saileko kontseiluak koordinatzailea izendatuko du. Kontseiluan adostasunik ez badago koordinatzailea izendatzeko, koordinatzailea kategoria eta antzintasun handieneko irakaslea izango da. Koordinatzaileak gehienez ere jarraituko bi ikasturtetan izango du kargua eta gutxienez beste bi ikasturte igaro beharko dira berriz izendatu arte irakasle bera.

Irakasgaiko koordinatzailearen eginkizunak dira:

- a) **Irakasgaiko irakaskuntza gidak gainbegiratu eta eguneratzea** sailtako kontseiluak onar ditzan.
- b) Irakasgaia EEFko atal batean baino gehiagotan eta sail batek baino gehiagok ematen badute, koordinatzaileek bilera egin beharko dute irakaskuntza gida adosteko kasuan kasuko saileko kontseiluan onartu aurretik.
- c) **Gainbegiratzea talde guztietako irakaskuntza** bat datorrela irakaskuntza gidan zehaztutakoarekin.
- d) **Bilerak egitea irakasleekin** gutxien dela ikasturtean bi aldiz eta bileran hartutako erabakien akta egitea. Lehenengo bilera, eskolak ematen hasi aurretik egingo dute irakasgaia koordinatzeko; bigarrena, eskolak amaitu ondoren, emaitzak aztertu eta hobetzeko ekintzak proposatzeko.
- e) Mailako/moduluko koordinatzailearekin adostea ebaluazio jarraituan puntuatuko duten **jardueren kronograma**. Kronograma lauhilekoaren hasieran jakinarazi behar zaie ikasleei eta **eskuragarri egon behar da eGelan**.
- f) Gainbegiratzea **azterketa partzialak** (edo probak) eta azterketen berrikuspena **irakasgai bakoitzerako zehaztutako egun eta ordutegian** egiten direla.
- g) **Ikasleak ikastegitik kanpora badoaz** irakaskuntzako jardueraren bat egitera, horren **berri ematea dekanotzan**, bai eta eskola orduetan kanpoko profesionalen hitzaldirik edo bisitarik dagoenean ere.

- h) **Ikasleen ordezkariekin bilera egitea** (mailako ordezkariekin) gutxienez bi aldiz ikasturte bakoitzean, ikasleen iritzia jakiteko eta hobekuntza ekintzak adosteko.
- i) "*EEFko (Sarriko) graduko irakasgaietan zeharkako gaitasunen balorazioa*"ri buruzko inkesta betetzea. Inkesta honek irakasgaiaren koordinazio-txostena osatzen du, eta bertan zeharkako gaitasun bakoitzaren betetze-maila zehazten da, analisia errazteko eta datu-bilketa homogeneizatzeko, fakultate-mailako diagnostiko bat egiteko.
- j) Ikasturtea amaitzean **irakasgaiaren koordinazio-txostena egitea**, programazioaren garapenari buruzko informazioarekin. Aipatuko ditu gorabehera nagusiak eta, halakorik dagoenean, hobekuntza proposamenak egingo ditu.
- k) Irakasgai bat irakasle bakar batek ematen badu, irakasleak **irakaskuntzaren garapenari buruzko txostena** bete beharko du nahitaez, eta irakasgaiko moduluko koordinatzaileari bidali.
- l) Irakasleei irakaskuntza-ikaskuntzako **hobekuntza ekintzen jarraipenari buruzko informazioa ematea** eta emaitzen berri.

GRADUAN, MAILAKO/MODULUKO KOORDINATZAILEA

Graduko memorietan ezarritakoaren arabera, irakasgai bakoitza modulu batekoa da, eta modulu hori **Egoitzako Batzordeak eta/edo ataleko batzordeek** izendatutako irakasle batek koordinatzen du.

Moduluko koordinatzaileak irakaskuntza-ikaskuntza prozesua behar bezala garatzen dela zaindu behar du: modulua osatzen duten irakasgaietako irakasle taldeak koordinatuko ditu moduluko gaitasun zehatzak eta zeharkakoak garatzen direla bermatzeko.

Moduluko koordinatzailearen eginkizunak dira:

- a) Titulazioko koordinatzaileak deitutako **bileratara joatea**.
- b) **Modulua osatzen duten irakasgaietako koordinatzaileei dei egitea** irakaskuntza behar bezala garatzeko beharrezkoak diren **bileretara**, eta bilera horien akta egitea.
- c) **Irakasgaietako koordinatzaileei** beren eginkizunak azaltzea eta eginkizun horiek nola bete.
- d) **Irakasgaien arteko koordinazio eraginkorra** bultzatzea, batez ere moduluari lotutako [iraunkortasunaren arloko gaitasunen](#) garapenean.
- e) **Irakaskuntzako jarduera osagarriak** koordinatzea eta bultzatzea, hala nola enpresetara bisitak, profesionalen hitzaldiak, etab.
- f) Irakasgaien ebaluazioko koordinazioari buruzko informazioa biltzea.
- g) Ikasketan izandako emaitzak aztertzea eta lauhilekoan izandako gorabeherak, eta hobekuntza ekintzak proposatzea.
- h) **Urteko txostena** egitea moduluan irakaskuntzak izandako nondik norakoak azalduz eta titulazioko koordinatzaileari bidaltzea.
- i) **Irakasgaietako koordinatzaileei** irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako planteatu diren **hobekuntza ekintzen berri ematea**, bai eta horiek izandako emaitzena ere.

GRADUKO TITULAZIOKO KOORDINATZAILEA

Titulazioko koordinatzaileak egiten duen lana oso garrantzitsua da irakaskuntza garatzeko, baina baita dekanotzari laguntzeko ere, izan ere, informazioa biltzen, proposamenak egiten eta txosten akademikoak eta kudeaketakoak egiten laguntzen dio.

Fakultateko Batzarrak aukeratzen du aldian-aldian eginkizun horiek beteko dituen irakaslea, eta izendapenak **JAPean kredituak aitortzea dakar**. Hala ere, gaur egun, araudian ez da berariaz aipatzen koordinatzaile horrek izendapen horren arabera bete behar dituen eginkizunak. Beharrezkoa da, beraz, karguari lotutako jarduerak, zereginak edo funtzioak nolabait zehaztea.

Graduko koordinatzaileak graduari jarraipena egitea erraztu behar du, irakaskuntzari lotutako adierazleen bilakaera aztertu behar du eta irakaskuntza lanaren behar espezifikokoak antzeman behar ditu, eta dekanotza taldeari jakinarazi behar dizkio. Horretarako, **eginkizun** hauek bete behar ditu:

- a) Titulazioko gaitasunen eta horiei lotutako ikaskuntzaren emaitzen garapena bermatzea, bereziki UPV/EHUK zehaztutako gaitasunei dagozkienak.
- b) Behar beste bilera egitea (gutxienez bi lauhileko bakoitzeko) moduluko koordinatzaileekin, lauhileko amaierako bileran, ikasleen ordezkari bat ere egongo behar da. Bileren akta egin beharko du.
- c) Bilerak egitea, bai ikasleekin, haien ordezkariak hala eskatzen dutenean, bai irakasleekin, mailako edo moduluko irakasle talde batek hala eskatzen duenean.
- d) Irakasleen irakaskuntza gaitasuna hobetzeko xedez eskatutako prestakuntza ikastaroak dekanotzari aurkeztea.
- e) **Dekanotza taldearekin lankidetzan aritzea**, batez ere hezkuntza berrikuntzaren arloko dekanordeekin.
- f) Lauhileko/ikasturte bakoitzeko **emaitza akademikoak aztertzea** eta tituluaren irakaskuntza jardueraren garapenari buruzko urteko txostenean jasotzea.

- g) Graduaren koordinazioari buruzko txostena egitea.
- h) **Titulazioaren jarraipen txostena egitea** indarguneak eta ahuleziak adierazita eta hobekuntza ekintzak zehaztuta.
- i) **Moduluetako koordinatzaileei** irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako planteatu diren **hobekuntza ekintzen berri ematea**, bai eta horiek izandako emaitzena ere.
- j) Graduako GRAL batzordeetan parte hartzea.

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua EEFko hiru ataletan ematen denez, atal bakoitzerako titulazioko koordinatzaile bat izendatuko da. Koordinatzaileok harreman estua izan behar dute irakats eskaintza bateratua eta koherentea izan dadin. Horrela, bada, jarraipen txosten bakarra egingo da, bertan jasota atal guztien ezaugarriak, bilakaera eta gorabeherak.

GRADU BIKOITZEN KOORDINATZAILEAK

Ekonomia eta Enpresa Fakultatean gradu bikoitz hauek eskaintzen dira:

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza+Zuzenbidea (EEF, Bilbo-Sarriko eta Gipuzkoa)
- Double Bachelor's Degree in Business & Economics (FEE, Bilbao-Sarriko)
- Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitza (EEF, Bilbo-Elkano).
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza + Kudeaketarako Informatika Ingeniaritza eta Informazio Sistemak Gradu Bikoitza (EEF, Araba)
- Ingeniaritza Mekanikoa + EAZ Gradu Bikoitza (EEF, Araba).

Gradu bikoitzaren zuzendaritza eta koordinazio lana **gradu bakoitzeko batzorde akademikoari** dagokio, batzordean ordezkariak izanik bai EEFkoak bai eskolak ematen dituen ikastegietakoak.

- [EAZ + Zuzendaritza gradu bikoitza](#)

Bizkaiko Campusean (Bilbo-Sarriko) eta Gipuzkoakoan ematen da.

Batzorde Akademikoren osaera: EEFko eta Zuzenbideko dekanok (edo beren ordezkari izendatutako pertsonak); Zuzenbide Fakultateko Bizkaiko Ataleko Koordinazioko dekanordea; EEFko Gipuzkoako Ataleko Koordinazioko dekanordea; gradu bikoitzeko koordinatzaileak; gradu bikoitzeko ikasleen ordezkari bat campus bakoitzeko.

Gradu bikoitzaren **koordinatzailea** bat dago eskolak ematen diren campus bakoitzean, eta koordinatzaile lanean txandaka aritzen dira bi urterik bi urtera fakultateetako dekanordeak. Bizkaian, koordinatzaile zereginetan EEFkoa hasiko da, eta Gipuzkoan, Zuzenbide Fakultatekoa, bi urterik bi urtera txandakatuz.

- [Double Bachelor's degree in Business and Economics \(GADECO\)](#)

EEFn ematen da (Bilbo-Sarriko). **Batzorde Akademikoaren** osaera: EEFko dekanoa (edo hark izendatutako pertsona); gradu bikoitzeko

koordinatzailea; EAZ Graduko koordinatzailea (EEF, Bilbo-Sarriko);
Ekonomiako Graduko koordinatzailea; graduko bikoitzeko ikasleen
ordezkari bat.

Koordinatzailea ikastegiko irakasle iraunkor bat izango da, Fakultateko
Batzarrak aukeratua.

- **Negozioren Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako
Gradu Bikoitza**

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean (Leioa) eta EEFn (Bilbo-
Sarriko) ematen da. **Batzorde Akademikoaren** osaera: EEFko eta Lan
Harreman eta Gizarte Langintza fakultateetako dekanook (edo berek
izendatutako pertsonak); EEFko Elkanoko Ataleko Koordinazioko
dekanordea; Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko dekanorde
bat, dekanook izendatua; gradu bikoitzeko koordinatzailea; gradu
bikoitzeko ikasleen ordezkari bat.

Koordinatzaile lanean txandaka arituko dira Negozioren Kudeaketako
Graduko koordinatzailea eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako
Graduko koordinatzailea, eta bi urterik behin txandakatuko dira.

- **EAZ + Kudeaketarako Informatika Ingeniaritza eta Informazio
Sistemak Gradu Bikoitza**

Arabako Campuseko bi ikastegitan ematen da: Vitoria-Gasteizko
Ingeniaritza Eskolan eta EEFn (Araba). **Batzorde Akademikoaren** osaera:
EEFko dekanoa eta Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako zuzendaria
(edo berek izendatutako pertsonak); EEFko Arabako Ataleko Koordinazioko
dekanordea; Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako zuzendariorde bat;
gradu bikoitzeko koordinatzailea; gradu bikoitzean matrikulatutako
ikasleen ordezkari bat.

Koordinatzailea EEFko (Araba) irakasle bat izango da, dekanook izendatu
eta Fakultateko Batzarrak onartua.

- Ingeniaritza Mekanikoa + EAZ Gradu Bikoitza

Ingeniaritza Mekanikoko eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu Bikoitza Arabako Campuseko bi ikastegitan ematen da: Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolan eta EEFn (Araba). **Batzorde Akademikoaren** osaera: EEFko dekanoa eta Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako zuzendaria (edo berek izendatutako pertsonak); EEFko Arabako Ataleko Koordinazioko dekanordea; Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako zuzendariorde bat; gradu bikoitzeko koordinatzailea; gradu bikoitzean matrikulatutako ikasleen ordezkari bat.

Koordinatzailea Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako irakasle bat izango da, Zuzendaritza Taldeak izendatu eta Ikastegiko Batzarrak onartua.

Gradu bikoitzeko koordinatzailearen eginkizunak dira:

- a) Gradu bikoitzeko batzorde akademikoko kide izatea.
- b) Batzorde akademikoak hartutako erabakiak ezartzea.
- c) Gradu bikoitzaren ordezkari izatea.
- d) Gradu koordinatorak dituen eginkizun guztiak, barne hartuta: irakaskuntza jardueraren garapenari buruzko txostena egitea ikasturte amaieran eta gradu bikoitzaren jarraipen txostena.

KALITATEKO DEKANORDEA

Titulazioen koordinazioa dekanotza taldeak gainbegiratzen du, hain zuzen ere, Kalitateko dekanordeak. Bere eginkizunak dira:

- a) **Titulazioko gaitasunen** eta horiei lotutako ikaskuntzaren emaitzen **garapena bermatzea**, bereziki UPV/EHUK zehaztutako gaitasunei dagozkienak.
- b) Titulazioko koordinatzaileekin **behar beste bilera egitea** (gutxienez bi lauhileko bakoitzeko), **irakaskuntzaren garapena aztertze**ko, gradu bakoitzaren indarguneak eta ahuleziak zehazteko eta hobekuntza ekintzak adosteko.
- c) **Irakaskuntzaren garapenari buruzko azken txostena** egitea, FEEn ematen diren titulazio guztietan proposatutako hobekuntza ekintzak zehaztuta, eta aurreko ikasturteetan zehaztutako ekintzen emaitzak aztertuta. **Txosten hori Egoitzako Kalitateko Dekanordeak egingo du**, dekanotza taldeak erabakiak hartu ahal izan ditzan.
- d) **Sail bakoitzeko zuzendariari bere arloko irakasgaien irakaskuntzaren garapenaren berri** ematea.
- e) Ikastegian irakaslanaren kalitatea hobetzen lagunduko duten **Hezkuntza Berrikuntzako jarduerak bultzatzea**.
- f) Irakasleen irakaskuntza gaitasuna hobetzeko xedez eskatutako **prestakuntza ikastaroak** Hezkuntza Berrikuntzako errektoreordeari aurkeztea.
- g) **Kalitate Batzordeari** irakaskuntzaren garapenari eta koordinazioari buruzko txosten guztiak aurkeztea.